EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**
CEIP ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLA

**Ikastetxearen kodea:**
013521

**Data:**
2023(e)ko maiatzaren 22(a)



# 1. SARRERA

**Ikastetxearen testuingurua**
Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

**Kanpoko dimentsioa**:

Martxoaren 18ko 40/2014 dekretuaren bidez, Organo Gorenak eta Hezkuntza Sailak onartuta, Astigarragako Herri Eskola eratu zen, Arantzazuko Ama Ikastolatik desanexionatu ondoren. Astigarragako herrian kokatua dago eta gaur egun herri honetan dagoen eskaintza bakarra da, sare publikoan, nola pribatuan.

Gizarte eta ekonomia faktoreen arabera, maila ertaineko udalerria da. Biztanleriari erreparatuz gero, maila sozioekonomiko erdi-altukoa eta gaztea: herriko populazioak goranzko tendentzia mantentzen du, eta ondorioz, gure eskolako ikasle kopuruak ere bai (https://es.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/astigarraga.html).

Kanpoko erakundeekin ere parte hartzen dugu: Udala, udaleko teknikariekin, Normalkuntza Batzordea, EA2030, beste herriko zerbitzuekin, Berritzegunekoekin (bai beraiek zentrora hurbilduz, bai irakasleak mintegietara joanez)...

**Barruko dimentsioa**:
Astigarraga, Gipuzkoako ipar-ekialdean dago kokatua, Urumearen ibaiaren ezkerraldean. 1943-1987 bitartean Donostiaren zati bat zen Astigarraga. Herriak egun 7465 biztanle ditu, azkeneko urtetan igoera nabarmena izanik.

Astigarragako Herri Eskola, 2014an Arantzazuko Ama ikastolaren banaketaren ondorioz sortutako eskola da. Eraikuntza moja-ikastetxea izan zen 60ko hamarkadan. Ordutik moldatzen joan da eskolaren beharretara egokitzeko, azken hamar ikasturteetan nabarmen gainera, hiru handitze prozesu jasan baititu. Gaur egun matrikulazioaren igoera dela eta, espazio faltagatik eskola handitzeko beharrean gaude berriro ere.

Instalazioei begira behar handiak daude: matrikulazio altuaren eraginez, ikasle- taldeak geroz eta kopurutsuagoak dira, eta espazio komunak eskas geratu dira eta ez dago berariazko gelarik (laborategi, plastika). Ekipamenduari erreparatuz, gelak hornitzeko materiala zaharkituta dago eta ekipamendu berriaren beharra sumatzen da: IKT tresnak, altzariak...

Hezkuntza Komunitatea ikasleek, irakasleek, familiek eta zerbitzuetako langileek osatzen dute. Hauen arteko harremanak ezinbestekoak dira eskolaren funtzionamendu eta elkarbizitza on baterako. Ikasleei dagokienez, gure eskolara 706 ikasle etortzen dira, gehiengoa herri bertakoa izanik. D ereduko ikasketak ematen dira, Haur eta Lehen Hezkuntzan (2-12 urte bitarte). Hezitzaile taldea 71 pertsonek osatzen dugu: 40 tutore, 28 espezialista-laguntzaile eta 3 hezitzaile. Ehuneko handi bat finkoak gara eskolan, eta horrek, noski, eskolaren egonkortasunari mesede handia egiten dio. Zerbitzuetako langileak, atezaintza, jantokia, haur txokoa, garbiketa, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskolako mantenuaz arduratzen dira.

Eskolako identitate ezaugarrien artean hauek nabarmentzen dira:
- Euskalduna: euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta sustapenarekin konprometitua.
- Garapen integrala-hezkuntza emozionala: pertsona bere osotasunean kontuan hartzen duena.
- Elkarbizitza: berdintasuna, errespetua, tolerantzia, elkartasuna eta lankidetza. Hiritar aktibo eta kritikoak prestatuko dituena.
- Inklusiboa: aukera berdintasuna bermatzen duena.
- Hezkidetzailea: gizarte ez-sexista baterako hezteko ahalegina egingo duena.
- Parte-hartzailea: eskola komunitate (familia, ikasleak, ez dozenteak, irakasleak) osoaren lankidetza sustatzen duena.
- Akonfesionala.

**Azpiegiturak**
Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

**Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa eta konektibitatea:**

- Biltegi gailuak
  - Disko gogorra kanpokoa ………………………………………………4
  - Nas-sarean gordetzeko sistema ……………………………………1
- Bistaratze gailuak
  - Arbel elkarreragilea Inform ukimen …………………………………11
  - Panel-monitorea elkarreragilea 65 …………………………………19
- Elektrizitatea egonkortzeko gailuak
  - Etenik gabeko elikadura aurreratua 4500kva-informatika (UPS)…1
- Informatika altzariak
  - Armairua-orga ordenagailuentzako elektrifikatua ………………7
- Inprimatzeko eta eskaneatzeko gailuak
  - Eskanerra ……………………………………………………………1
  - Funtzio askotako ekipoa laser/tinta sarea b/z A4………………… 1
  - Inprimagailua-laser sarea z/b oinarrizkoa A4……………………1
  - Inprimagailua-tintazkoa lokala koloretakoa A4………………… 5
- Ordenagailu motak
  - Ordenagailu eramangarria …………………………………………23
  - Ordenagailu mini eramangarria ……………………………………119
  - Ordenagailu ultra eramangarria ……………………………………127
  - Ordenagailu ultra eramangarria eta mifi-a (red.es) ……………38
  - Ordenagailua mahai gainekoa A ……………………………………66
  - Sare/zerbitzari nagusia A ……………………………………………1
- Proiekzio gailuak
  - Proiektugailu puntero-arbel elkarreragilerako …………………1
  - Proiektagailua ukimen-barra elkarreragilerako …………………10
- Sare lokaleko gailuak
  - "Wifi" delako sarrera-puntua ………………………………………16
  - Switch aurreratua 3mailakoa 24A (konmutadorea) ………………6

**Plataformak:**

- Innovamat: 2021-22 ikasturtean LH 1.zikloan.
  2022-23 ikasturtean LH 1. eta 2.zikloan.
- Matific: 2021-22 ikasturtean LH 2. eta 3.zikloan.
  2022-23 ikasturtean LH 3.zikloan.
- Inika: Eskolako maila guztietan ebaluaziorako eta informeak gurasoekin partekatzeko.
- Google tresnak: Classroom, Drive, inprimakiak, aurkezpenak, kalkulu-orriak (LH2. eta 3.zikloan) eta Gmail (LH 3. zikloan)
- Web gunea (astieskola.eus): Wix plataforma
- Sarea: Google bidez

**Mantenua**

Kanpo zerbitzua: CAU enpresa
Barne zerbitzua: AKA

**Zerbitzu digitalak:**

Programen instalazioa: administrariak.

**Proiektuaren justifikazioa**
**Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.**

*2022-2023 Ikasturtearen antolaketa Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe publikoetan, Hezkuntza sailburuordearen ebazpenean,* 1.3. ikastetxearen proiektu digitala (IPD) atalean agertzen den bezala, ikastetxearen proiektu digitala IHParekin eta ICParekin lerrokatua egongo da.

Ikastetxearen Proiektu Digitala egingo da 2023ko ekainaren 16rako eta Hezigunera igoko da. IPDa egiteko, Digitalizazio Batzorde bat osatuko da, IPDaren prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko eta eguneratua mantentzeko.

Gaur egun, gure gizartea are eta digitalizatuago dago. Hortaz, ikastetxeek gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkien eskaerei erantzun behar diete. Ikastetxeek etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatzeko prestatu behar dituzte. Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea ikastetxeko praktiketan: antolamendu-alderdietan eta irakas-ikas prozesuetan.

Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatu nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa da digitalki konpetentea izatea. Burutuko dugun proiektuaren bidez ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko jarduerak garatuko dira.

Aipatu beharra dago, DigCompEdu markoa. DigCompEdu Europar Batasunak ikastetxeetako profesionalentzako adostu duen markoa da. Europako estatu kide askok uste dute hezitzaileek gaitasun digital espezifikoen multzo bat behar dutela. Gaitasun horiei esker, teknologia digitalek hezkuntzan hobetzeko eta berritzeko duten potentziala aprobetxatuko dute. Hezitzaileen gaitasun digitalerako Europako markoak (DigCompEdu) horri erantzuna ematen dio.

Gure ikastetxearen errealitatea aztertzeko eta etorkizunerako ekintza planak diseinatzeko, DigCompOrg markoaren laguntza izan dugu. Digitalizazio konpetentzia hauek lortze aldera Hezkuntza Sailak eskainitako irakasleen akreditazioa (A1 edo A2) eta ikastetxearen proiektu digitala gauzatuko dira.

**Elaborazio prozesua eta lan-taldea**
**Lehentasunak zehaztu.**
**Planifikazio maila zehaztu.**
**Nor izango da eragilea?**

Ikastetxeko proiektu digitala gauzatzeko, IUPean zehaztuta dagoen bezala, digitalizazio batzordea osatu da. Batzordeko parte hartzaileak honako hauek dira: HHko bi irakasle, LHn ziklo bakoitzeko irakasle bat, zuzendaritzako kide bat eta BeA arduraduna digitalizazioko koordinatzaile gisa. Bestalde, ikastetxeko beste BeA arduradunak ere parte hartuko du.

Digitalizazio batzordea, asteazken eguarditan elkartuko da eta maiztasuna beharren araberakoa izango den arren, gutxi gora behera bi-hiru astetik behin elkartuko da.

Batzorde hau sortu aurretik, digitalizazioan gure ikastetxeak honako ibilbide hau izan du:

- 2010etik aurrera Eskola 2.0 programan sartu zen.
- 2015ean IKT batzordea osatu zen, 21-22 ikasturterarte.
- 2017-18 ikasturtetik 2019-20 arte Sare Hezkuntza.
- 2020an kontingentzi plana eratu zen.
- Ikastetxearen heldutasun eredua: Maila ertaina

Proiektu digital hau gauzatzeko, DigCompOrg markoak ezarritako hiru dimentsioak kontuan hartuko dira: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamenduzkoa. Marko honek ikastetxearen analisia proposatzen du 7 eremuetan oinarrituta: Azpiegitura, Lidergoa eta Gobernantza, Irakaskuntza eta Ikaskuntza, Garapen Profesionala, Ebaluazioa, Edukiak eta Curriculuma, eta Laguntza eta Lankidetza Sareak.

Proiektua elaboratzeko jarraituko den prozedura honakoa da: IPDaren sarrera idatzi, ikastetxearen analisia egin (SELFIE autoebaluazio tresnaren bidez), SELFIEan ateratako emaitzen azterketa egin, AMIA taula bete, horren ondorioak atera, helburuak zehaztu (bakoitza bere deskriptore eta adierazleekin), helburuen lehentasuna eta helburu bakoitzari lotutako ekintzak definitu eta ebaluazio markoa ezarri (arduradunak, moduak eta tresnak).

Ikastetxeko proiektu digitala, hezkuntza komunitateak balioetsi behar du. Horretarako, bide hau jorratuko delarik: Digitalizazio Batzordea, Zuzendaritza taldea, Batzorde Pedagogikoa, klaustroa eta Organo Gorena.

**Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

*2022-2023 Ikasturtearen antolaketa Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe publikoetan, Hezkuntza sailburuordearen ebazpenean,* prestakuntza planaren barruan, Curriculum berria eta haren garapena eta digitalizazioa atala dago. Bertan honela jasota dago:

"Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharrizan eta aukera berriak sortzen dituzte. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, Hezkuntza sailak 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana onartu du.

Digitalizazio Plan honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da. Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera."

Ikastetxearen Proiektu Digitala ikastetxeko testuinguru zabal batean kokatu behar da. Testuinguru hori Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehazten da.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan zehaztuta dago: Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.

Horretaz gain, 2022-23 ikasturteko Urteko Planaren barruan (hobekuntza planari jarraituz) eskolako helburu orokor bezala jasoa dago "IKTen erabilera eraginkorragoa lortzea. Konpetentzia digitala dagokion markora egokitzea." Helburu hau lortzeko jarduera hauek ezarri dira:

- Ikasleen gaitasun digitala garatzeko plangintzak egin eta baliabideak martxan jarri.
- Irakasleen trebakuntza digitala akreditatzea.
- Webgunearen elikatze eta eguneratzea sistematizatu.
- Familiei informazioa zabaltzeko bide dinamikoak aztertu: sare sozialak…
- Ikasturte amaierarako ikastetxearen proiektu digitala amaitu.

Bestalde, IUPean hezkuntza-laguntza eta -indartzeen antolaketa atalaren barruan erreferentzia egiten zaio gaitasun digitaleko errefortzuari. Bertan aipatzen da LH-ko lehen zikloan IKT saioak antolatu direla gaitasun digitala indartzeko. Ikastalde bakoitzak astean bi ordu izango ditu, baina ikasleak bi taldetan banatu eta saio bakarra jasoko dute astean.

# 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxearen egoeraren analisia burutu ahal izateko SELFIE tresna erabili da. Tresna honek irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako teknologia digitalen erabileran, ikastetxearen indargune eta ahulguneak identifikatzen laguntzen du.

**SELFIAN JASOTAKO EMAITZAK:**
https://labur.eus/ODn29

**Galdetegiaren osatze-indizeak:**

- Zuzendaritza-taldeko kideak: %100 (3/3)
- Irakasleak: %86 (57/66)
- Ikasleak (5. eta 6.mailakoak): %93 (113/121)

**Datuen hausnarketa:**
Zuzendaritza eta irakasleen emaitzetan alde handiena lidergoaren atalean azaldu da. Hau da, teknologia digitalak ikastetxe mailan integratzean betetzen duen funtzioari eta teknologia digitalek ikastetxearen zeregin nagusietan (irakaskuntza eta ikaskuntza) duen erabilera eraginkorrari buruzko iritziak desberdinak dira.

Zuzendaritzak puntuazio baxuagoa (2.7/5) eman dio, irakasleek (3.6/5) eman diotena baino.

Gainontzeko atalei dagokienez emaitzak antzekoak izan dira:
- Kolaborazio eta sareak (zuzendaritza 3.2/5, irakasleak 3.3/5)
- Azpiegitura eta ekipamenduak (zuzendaritza 3.3/5, irakasleak 3.6/5)
- Etengabeko prestakuntza profesionala (zuzendaritza 2.9/5, irakasleak 3.3/5)
- Pedagogia: laguntzak eta baliabideak(zuzendaritza 3.9/5, irakasleak 3.6/5)
- Pedagogia: ikasgelan aplikatzea (zuzendaritza 3.1/5, irakasleak 3/5)
- Ebaluazio-jarduketak (zuzendaritza 2.3/5, irakasleak 2.3/5)
- Ikasleen konpetentzia digitalak (zuzendaritza 3.1/5, irakasleak 3.5/5)

Azpimarragarriena ebaluazio-jarduketa atala izan da, bi erabiltzaile-taldeetan emaitza baxua bildu baitu (2.3/5).

Ikasleei dagokionez, orokorren balorazio onak eman dituzte. Baxuena kolaborazio eta sareak izan da (3/5). Gainontzeko emaitzak hauek izan dira:
-Azpiegitura eta ekipamenduak 4.2/5
-Pedagogia: ikasgelan aplikatzea 4.1/5
-Ikasleen konpetentzia digitalak 4.3/5

**AMIA analisia**
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

## Faktore negatiboak

| Ahuleziak (barne-faktoreak) |
|---|
| Laguntza tekniko falta. |
| Haur Hezkuntzan azpiegitura digital falta. |
| Estrategia digital argirik ez. |
| Diziplinarteko proiektuen lanketa falta teknologia digitalak erabiliz. |
| Etengabeko Prestakuntza Profesional (EPP) falta. |
| Ebaluazioaren ahulezia: gaitasunen ebaluazioa, atzeraelikadura, hausnarketa... |

+ Lerro bat gehitu

| Mehatxuak (kanpo-faktoreak) |
|---|
| Denbora falta. |
| Mugak ikastetxeko espazioan. |
| Konektibitate-arazoak ikasgela batzuetan. |
| Interneteko arazoak eta konexio mantxoa. |
| Internetek gizartean dakartzan arriskuak. |

+ Lerro bat gehitu

## Faktore positiboak

| Indarguneak (barne-faktoreak) |
|---|
| Ondo antolatutako baliabide digitalerako sarbidea. |
| Lehen Hezkuntzako azpiegitura digitala: pantailak, ordenagailuak, eramangarriak... |
| Datuak babesteko sistemak. |
| Zuzendaritza-taldearen babesa eta laguntza. |
| Ikasleek digitalki lan egiteko gogoa. |
| Familiek ebaluazio txostenak digitalki jasotzea. |
| Komunikazio erregularra eta ondo antolatua familia eta eskolaren artean. |
| Irakasleen online baliabideen bilaketa eta erabilpena. |
| Irakasleen artean talde-lanean eta elkarlaguntzen aritzeko ohitura. |
| IKT saioak bermatzea Lehen Hezkuntzako 1.zikloan. |

+ Lerro bat gehitu

| Aukerak (kanpo-faktoreak) |
|---|
| Hezkuntza Sailaren digitalizazio plana |
| Irakasleek eduki digitala sortzeko gero eta tresna gehiago eskura izatea. |
| Plan digitalean zehazteke dauden helburu zehatzak. |

| |
|---|
| Irakasleen konpetentzia digitala bultzatzea. |
| Familiekin komunikatzeko bide berriak erabiltzea: webgunea, Telegram... |

+ Lerro bat gehitu

**Autoebaluazioaren ondorioak**
Hausnarketa eta AMIA tresnatik ateratako ondorioak.

**Indarguneak** optimizatu **aukerak** areagotzeko

- Familiekin komunikatzeko bide berriak ezagutarazi, familia eta eskolaren arteko komunikazioa erregularra eta ondo antolatua izaten jarraitzeko.
- Irakasleei eduki digitalak sortzeko tresna gehiago eskaini, online baliabideen bilaketa eta erabilerarekin jarraitzeko eta bultzatzeko.
- Zuzendaritza taldearen babesa eta laguntza baliatu, irakasleen konpetentzia digitala bultzatzeko.

**Ahuleziei** aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

- Irakasleen konpetentzia digitala sustatzeko A1/A2 ikastaroak aprobetxatu, Etengabeko Prestakuntza Profesional faltari aurre egin eta formakuntza-ikastaro berriak antolatzeko.
- Hezkuntza Sailaren digitalizazio plana aprobetxatu, estrategia digital argia sortzeko eta HHko gelak digitalki hornitzeko.
- Digitalizazio planean ebaluazioaren ahuleziari aurre egiteko helburuak zehaztu.

**Indarguneak** optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

- Irakasleen artean dagoen talde-lana eta elkarlaguntzen aritzeko ohitura bultzatu, denbora falta gutxitzeko.
- Ikasleek digitalki lan egiteko duten gogoa aprobetxatu, programazioetan gailu digitalen neurrizko erabilera eta Internetek gizarten dakartzan arriskuak txertatzeko.
- Lehen Hezkuntzako geletan azpiegitura digitala eta IKT saioen antolaketa bermatzen jarraitu, ikastetxeko espazio faltari aurre egiteko.

**Ahuleziei** eta **mehatxuei** aurre egin

- Formakuntzak eskaini, digitalizazio arazoei eta laguntza tekniko faltari aurre egiteko.
- Prestakuntza plan sendoa garatu, estrategia digitala garatu eta proiektuen lanketari eta denbora faltari aurre egiteko.

# 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

## LG Lidergoa eta gobernantza

| Helburua |
|---|
| Programaziotan mailaz-maila garatu beharreko gaitasun digitalak zehaztea, irakas-ikas prozesuetan gailu teknologikoen erabilera didaktikoa txertatuz, ikasle guztien konpetentzia digitalaren garapen egokia lortzen dela ziurtatzeko. |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| LG 2.1 Planifikazioa erraztaileetan oinarritzen da, eta, aldi berean oztopoei heltzen zaie | 2024/12/20 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| LG 2.1 A1 Programazioek ikasleen gaitasun digitalaren garapena jasotzen dute, eremuan, arloan edo | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Curriculumean digitalizazioari dagozkion konpetentzia, ebaluazio-irizpide eta oinarrizko jakintzak identifikatu eta jaso. | Curriculuma<br>Drive | Irakasleak<br>BeA<br>Digitalizazio batzordea | 2024/03/22 | Detektatua |
| Ikasleen mailaz-mailako irteera profila zehaztu. | Irteera profilaren dokumentua<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Prozesuan (%20-39) |
| Programazioetan konpetentzia digitalari lotutako jarduerak eta baliabideak jaso. | Programazioak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>BeA | 2024/12/20 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

| Helburua |
| --- |
| **Internetek eta gailu digitalen erabilera neurri gabeak eta desegokiak gizartean dakartzan arriskuak antzematea eta lantzea, plangintza hezitzaile bat eratuz, teknologien erabilera egokia eta ikasleen ongizate digitala sustatzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
| --- | --- |
| II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua | 2024/06/28 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
| --- | --- | --- |
| II 1.2 A3 Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu ditu, datuak babesteari, identitate digitalari, ziberseg | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| Macsonrisas proiektua aurrera eraman | Macsonrisas programa | Udala | 2023/06/23 | Detektatua |
| Teknologien erabilera egokia eta ikasleen ongizate digitala sustatzeko dekalogoa sortu. | Padlet<br>Canva, Genially | 2. eta 3.zikloko ikasleak<br>Irakasleak | 2023/12/22 | Detektatua |
| Sortutako dekalogoa familiekin partekatu. | Korreoa | Irakasleak<br>Zuzendaritza | 2023/12/22 | Detektatua |
| Plangintza hezitzaile bat sortu. | Drive<br>Gunea | Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## GP Garapen profesionala

| Helburua |
| --- |
| Eskolako langileen arteko prestakuntza eta esperientzia trukaketak bideratzea, elkarren arteko formakuntza sustatuz, ezagutza hobetzeko eta ikaskuntza-ingurune birtualetako tresna digitalak integratzeko. |

| Deskriptorea | Epea |
| --- | --- |
| GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin | 2024/06/28 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
| --- | --- | --- |
| GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| Irakasleok erabiltzen ditugun tresna eta baliabide digitalak elkarren artean partekatu. | Drive<br>Gunea | Irakasleak | 2023/12/22 | Detektatua |
| Baliabide digitalen zerrenda eta gunea sortu. | Drive<br>Gunea | Digitalizazio batzordea | 2023/12/22 | Detektatua |
| Baliabide digitalen guneari buruzko gogobetetze inkesta jaso. | Irakasle berriei bidaltzen zaien galdetegia. | Zuzendaritza taldea | 2024/06/28 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EJ Ebaluazio jardunbideak

| Helburua |
|---|
| **Programazio didaktikoetan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleak lortu beharreko mailaz-mailako garapena erreferentziatzat hartuz, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da | 2024/12/20 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| EJ 3.1 A1 Hezkuntza-maila bakoitzeko ikasleen gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak ezarri ditu, ar | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Curriculumean digitalizazioari dagozkion konpetentzia, ebaluazio-irizpide eta oinarrizko jakintzak identifikatu eta jaso. | Curriculuma<br>Drive | Irakasleak<br>BeA<br>Digitalizazio batzordea | 2024/03/22 | Detektatua |
| Ikasleen mailaz-mailako irteera profila zehaztu. | Irteera profila dokumentua<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Prozesuan (%20-39) |
| Programazioetan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak jaso. | Programazioak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>BeA | 2024/12/20 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

| Helburua |
|---|
| **Ebaluatzeko tresna digitalen (errubrikak, portfolioak...) erabilpena ezartzea, ikasleen ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa sustatuz, ikasleek eskuratzen dituzten ezagutzei eta lortzen duten konpetentzien garapenari buruzko informazioa jasotzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| EJ 1.4 Inguruko informazio aberatsa, pertsonalizatua eta garrantziduna jasotzea bultzatzen da eta espero da | 2025/06/27 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| EJ 1.4 A1 Ikastetxeak errubrika-banku bat sortu eta antolatu du. | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleen ebaluazio, autoebaluazio eta koebaluazioa bideratu. | Txantiloiak | Irakasleak | 2024/03/22 | Detektatua |
| Errubrika banku bat sortu. | Drive<br>Gunea | Digitalizazio batzordea<br>Irakasleak | 2024/06/28 | Detektatua |
| Programazioetan ebaluazioari eta konpetentzien garapenari buruzko informazioa txertatu. | Programazioak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>BeA | 2024/12/20 | Detektatua |
| Programazioetan ebaluazio, autoebaluazio eta koebaluazio jarduerak berrikusi. | Programazioak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>BeA | 2025/06/27 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EC Edukiak eta curriculuma

| Helburua |
|---|
| **Eduki digitalak bete beharreko markoaren arabera (lizentzia, egile eskubideak...) sortzea eta erabiltzea, ikasleen aniztasuna kontuan hartuz, maila eta ikasle guztietara egokitzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| EC 1.3 Jabetza intelektualeko eta copyright eskubideak errespetatzen dira | 2024/06/28 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| EC 1.3 A1 Departamentuak/mailek/zikloak lineako ikaskuntzaren ingurune digitalean eskaintzen dire | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Irakasleak egile-eskubide eta lizentzien gainean trebatu. | Curriculum eta konpetentzia digitala ikastaroa | Hezkuntza Saila | 2023/05/31 | Egina |
| Eduki digitalek bete beharreko markoei eta Ikasteko Diseinu Unibertsalari buruzko tutorialak eta gidak irakasleen eskura jarri. | Tutorialak eta gidak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Detektatua |
| Lagungarriak izan daitezkeen kit-tutorialak bilatu edo sortu. | Tutorialak eta gidak<br>Drive<br>Gunea | Irakasleak<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## EN Elkarlana eta networking-a

| Helburua |
|---|
| **Ikastetxean informazioa, baliabide digitalak eta materiala partekatzeko antolaketa sortzea, horretarako erabiltzen diren plataformak antolatuz eta arduradunak izendatuz.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| EN 1.1 Ohikoa da pertsonalak sarean lankidetzan jardutea ezagutza adituak bateratzeko eta edukiak partekatzeko | 2025/06/27 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| EN 1.1 A1 Ikastetxeak erakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du, beharrezko informazioa, sa | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Antolaketarako arduradunak izendatu. | | Pedagogia batzordea<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Detektatua |
| Erabiliko den antolaketa zehaztu. | Drive<br>Gunea | Zuzendaritza<br>Digitalizaio batzordea | 2024/06/28 | Detektatua |
| Informazioa, baliabide digitalak eta materiala partekatzeko antolaketa eta kudeaketa egin. | Drive<br>Gunea | Aukeratutako irakasleak | 2025/06/27 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

| Helburua |
|---|
| **Ikastetxeko webgunearen erabilera hobetzea, hezkuntza komunitate osoari informazioa zabaltzeko bide dinamikoagoak martxan jarriz, hezkuntza komunitatearekiko bi noranzkoko komunikazioa egoki bideratzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita | 2023/12/22 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| EN 2.1 A1 Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-pro | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Familiekin komunikatzeko bide desberdinak aztertu. | Akta | Digitalizazio batzordea | 2022/12/22 | Egina |
| Informazioa zabaltzeko erabiltzen diren bideak baloratu. | Akta | Digitalizazio batzordea | 2023/06/30 | Prozesuan (%40-59) |
| Ikastetxeko komunikazio bideez arduratuko diren pertsonak izendatu eta urteko plangintza egin. | Drive<br>Webgunea<br>Telegram | Digitalizazio batzordea | 2023/09/15 | Detektatua |
| Webgunea eta gainontzeko bideak elkarlotu. | Telegram<br>Webgunea | Digitalizazio batzordea | 2023/12/22 | Hasita (%1-19) |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## AZ Azpiegiturak

| Helburua |
|---|
| **Ikasgela guztiak, ikastaldeak daudenak lehenetsiz, ahal den neurrian gailuez hornitzea, adin guztietan, irakasleek egokiak diren materialak erabiliz, modu egokian erabiltzeko.** |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| AZ 2.9 Agerikoa da baliabideak eskuratzeko plan eraginkorra | 2024/06/28 |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| AZ Gailu digitalak identifikatzeko eta gelak hornitzeko prozesua zehaztu da. | Bai/Ez | Bai |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| Eskura ditugun gailu digitalak eta hauen egoera identifikatu. | Hezkuntza eta eskolako gailu digitalak.<br>Inbentarioa | Irakasleak<br>Digitalizazio batzordea | 2024/06/28 | Detektatua |
| Ahal den neurrian, ikastaldeak dauden gelak gailuez hornitu. | Hezkuntza eta eskolako gailu digitalak. | Irakasleak | 2024/06/28 | Detektatua |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

## IB Ikastetxeko berariazkoak

| Helburua |
|---|
| |

| Deskriptorea | Epea |
|---|---|
| | |

| Adierazlea | Mota | Helmuga |
|---|---|---|
| | | |

+ Adierazle gehitu

| Ekintzak | Baliabideak | Arduradunak | Epea | Egoera |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

# 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

| | Helburua | Noiz ebaluatu | Nola ebaluatu | Nork ebaluatu | Betetze maila | Hobetzeko proposamenak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LG | Programaziotan mailaz-maila garatu beharreko gaitasun digitalak zehaztea, irakas-ikas prozesuetan gailu teknologikoen erabilera didaktikoa txertatuz, ikasle guztien konpetentzia digitalaren garapen egokia lortzen dela ziurtatzeko. | 2024/12/20 | Programazioak aztertuz. | Irakasleak<br>BeAk | | |
| II | Internetek eta gailu digitalen erabilera neurri gabeak eta desegokiak gizartean dakartzan arriskuak antzematea eta lantzea, plangintza hezitzaile bat eratuz, teknologien erabilera egokia eta ikasleen ongizate digitala sustatzeko. | 2024/06/28 | Sortutako dokumentuak aztertuz. | Digitalizazio batzordeak | | |
| GP | Eskolako langileen arteko prestakuntza eta esperientzia trukaketak bideratzea, elkarren arteko formakuntza sustatuz, ezagutza hobetzeko eta ikaskuntza-ingurune birtualetako tresna digitalak integratzeko. | 2024/06/28 | Gunea eta baliabide digitalen zerrenda aztertuz.<br>Gogobetetze inkesta aztertuz. | Digitalizazio batzordeak | | |
| EJ | Programazio didaktikoetan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleak lortu beharreko mailaz-mailako garapena erreferentziatzat hartuz, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko. | 2024/12/20 | Programazioak aztertuz. | Irakasleak<br>BeAk | | |
| EJ | Ebaluatzeko tresna digitalen (errubrikak, portfolioak...) erabilpena ezartzea, ikasleen ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa sustatuz, ikasleek eskuratzen dituzten ezagutzei eta lortzen duten konpetentzien garapenari buruzko informazioa jasotzeko. | 2025/06/27 | Sortutako bankua aztertuz. | Irakasleak<br>BeAk | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EC | Eduki digitalak bete beharreko markoaren arabera (lizentzia, egile eskubideak...) sortzea eta erabiltzea, ikasleen aniztasuna kontuan hartuz, maila eta ikasle guztietara egokitzeko. | 2024/06/28 | Sortutako gune eta baliabideak aztertuz. | Digitalizazio batzordeak | | |
| EN | Ikastetxean informazioa, baliabide digitalak eta materiala partekatzeko antolaketa sortzea, horretarako erabiltzen diren plataformak antolatuz eta arduradunak izendatuz. | 2025/06/27 | Egindako antolaketari buruzko balorazioa eginez. | Aukeratutako irakasleak | | |
| EN | Ikastetxeko webgunearen erabilera hobetzea, hezkuntza komunitate osoari informazioa zabaltzeko bide dinamikoagoak martxan jarriz, hezkuntza komunitatearekiko bi noranzkoko komunikazioa egoki bideratzeko. | 2023/12/22 | Eskolako partaideen iritzia jasoz. | Digitalizazio batzordeak | | |
| AZ | Ikasgela guztiak, ikastaldeak daudenak lehenetsiz, ahal den neurrian gailuez hornitzea, adin guztietan, irakasleek egokiak diren materialak erabiliz, modu egokian erabiltzeko. | 2024/06/28 | Gailu digitalen eta hauen kokapenaren akta jasoz. | Irakasleak | | |
| IB | | | | | | |